

## UDAZKENEKO 45. RALLY-A (Antonio Elespe-ren oroimenezkoa)

**DATA:** 2023ko urriak 15, igandea.

**IBILBIDEA:** Donostiako hiria.

**GAIK:** Gaiak BOST izango dira eta irteera kontrolean jakinaraziko dira. Kontutan izan ez direla onartuko argazki berdintsuak gai desberdinetarako.

**PARTE-HARTZAILEAK:** Argazkilaritza maite duen edonork parte har dezake.

**KATEGORIAK:** Bakarra.

**MODALITATEAK:** Argazki kamara digitalekin bakarrik parte har daiteke.

**PREZIOA:** 10 euro parte-hartzaile bakoitzeko.

**IZEN EMATEA:** Gomendagarria da parte-hartzaileek izena ematea Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen, idazkaritzaren ohiko ordutegian edo posta elektronikoz, **2023ko urriaren 13a baino lehen**; hala ere, azken orduan parte hartzea erabakitzen dutenentzat Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen egoitzan egongo gara igandean, urriaren 15ean, goizeko 09:30etik 10:00etara.

**GAIK:** Kontroleko argazkiak (puntutik gabekoa) eta lehiaketaren egun berean ezagutaraztera emango diren **BOST GAI**.

**IRUDI KOPURUA:** Gehienez **36 argazki** aurkeztu daitezke (kontrol-argazkia barne).

**ARGAZKIAK EMATEKO:** Elkartearen egoitzan, **13:30etatik 14:00 arte**, parte-hartzaileen memoria txartelak Elkartearen ordenagailuetan deskargatuko dira. Argazkiak **JPG** formatuan bakarrik deskargatuko dira. Numerazioak ez du nahitaz jarraian egon beharrik (beraz, **argazkiak berratu daitezke**). Txartelak rally hasieran hutsik egon beharko du (formateatua).

**HAMAIKETAKOIA:** **11:45ak eta 12:15ak bitartean** izango da, **rallyren egunean ezagutzera emango den lekuan**.

**ARGAZKI AUKERAKETA:** Parte-hartzaileek posta elektronikoz bat bidali beharko dute [sfrally@gmail.com](mailto:sfrally@gmail.com) helbidera, gai bakoitzeko aukeratutako argazkiak zein diren adieraziz. Lehiaketarako aukeratutako argazkien **zenbakiek** rallyren egunean deskargatutako zenbakiekin kointziditu beharko dute. Aurkezteko epea: **urriaren 20an, ostirala**.

**EPAIMAHAIJA:** Gipuzkoako argazki-elkarte ezberdinetako ordezkiriek osatuko dute epai-mahaia eta hauok hartutako erabakia aldaezina izango da.

**SARI BANAKETA:** Emaitzak eta sari banaketa azaroaren 10ean, ostirala, 19:00etan, GAEko areto nagusian, izango dira.

1. SARIA: Bilduma onenarentzat garaikurra eta 100 euro.
  2. SARIA: Bigarren bilduma onenarentzat garaikurra.
  3. SARIA: Hirugarren bilduma onenarentzat garaikurra.
- Gai bakoitzeko argazki onenarentzat saria (5).

**“HERRIZ-HERRI” RALLY TXAPELKETA:** Parte-hartzaile guztiek “Herriz-herri” izeneko txapelketarako baliogarri den puntuaketa lortuko dute. Saillapen orokorra kontsultatu ahal izango da: <http://hhargazki.eus>

· Kamaran doikuntza klasikoak baimentzen dira: saturazioa, garbitasuna, kontrastea, etab., kliska egin aurretik eginak badira.

· Bai kolorea, bai zuri-beltza onartuta daude.

· Edozein motatako iragazkiak, aldatzaileak, flashak... onartzen dira, kameraz kanpoko edozein elementu, baldin eta kliska unean efektuak sortzen baditu, baina ez edizioagatik edo ondoren manipulazteagatik.

· Debeakututa daude kamerak eskaintzen dituzten sormenezko edizioaren efektuak, hala nola kolore selektiboa, miniatura-efektua, posterizazioa, etab., baita irudien ondorengo edizioa ere, kameran bertan zein kanpoko gailuetan.

· Debeakututa dago kameran bertan formatu-aldaketak egitea. Kamera modernoek formatua alda dezaketen arren (3:2, 4:3, 1:1; 16:9), horietako bat bakarrik erabili ahal izango da, aukeratu nahi duena, aurkezten den bilduma osoan.

*Parte-hartzaileak onartuko du, sarituta izatekotan, saria lortzeko aukera izango duten azkeneko bildumako argazkiak hodei zerbitzuan sartzen erraz egongo direla, alde haundiegian 1.200 px-eko bereizmen baxuan, beste parte-hartzaileen argazkiekin batera. Argazki bakoitza bere karpitetan, sailapenez antolatua, emaitza eta bozketen taulekin batera parte-hartzaileek konparatu eta ikasi ahal dezaten.*

### OHARRAK:

1. Rally-aren zenbatekoa izena ematerakoan ordaindu beharko da.
2. Parte hartzailearen batek oinarri hauek errespetatuko ez balitu, lehiaketatik kanpo geratu edo zigortua izango litzake.
3. Oinarriekiko edozein arazo edo ezustekorik balego, antolaketaren erizpideen arabera ebatziko da, GAEen Zuzendaritza Batzordearekin batera.
4. Rallya 14:00tan bukatuko da.
5. Rally honetan parte hartzeak, arau hauek onartzea dakar.